



YAKIN en geigarri

(PRO MANUSCRIPTO)

I (5-6) 1960

ERRI-ERITZIA

"Erri-eritzia [opinión pública] gizarte normal baten ondasun berezia da: izan ere, norberarekiko ta gizarteaganako beren joeraz kontzientzia duten gizarte-lagunen alkartasunetik dator eritzi au. Azkenean, bera baita edonun [...] gaurko gertakizun eta egoerak oien espirituan sortu duten berezko oiartzuna.

Erri-eritzi onen adigarririk ageri ez dan errialdean... ba-da aje gaizto bat, eritasunen bat, gizarte bizitzaren ez-bearren bat."

"Ikusita dago, ez dugu aitatu ere egiten beste jokaera bat: bidezko askatasuna bera ere erbesteturik daukan gizartean, erri-eritzia ixiltzea, alegia; or, agintea dutenen partiduen eritziak, nagusienak edo diktadoreenak bakarrik baitu bere abotsa entzumarazteko eskubiderik. Edozein kristaudentzat, erritarren eritzi ori itotzea edo ixilpe beartuan lotutzea jatorrizko giza-eskubidearen aurka joatea da, Jainkoak munduari ezarri dion ordena naastea."

"Benetan itxaro genuen, igaro ditugun neke gogorregi oiek bein-betiko jauntxokeri an lotsagarri onetatik askatzeko ikasbide izango zirela [...] baiña orregatik gure engaiñu au zuentzat baiña ere mingotsagoa izan zaigu."

"Gaur erri-eritzia deritzaigun ori ez da izena besterik, esanaigabeko izen utsa, burrunba bezelako zerbaít, eta ez gizartearen kontzientzian eta bertatik berez jaió ta esnatu dan oiartzuna."

"Gaur-eguneko gizonari atsegin zaizkio askatasun eta lasaitasuneko jokabideak. Askatasun ori, ordea, askotan ez da gizaki uts eta txiroen aurre-aurpegia besterik: barnean ttenttelkeria, eta ariman gezurra zuritzeko indarrrik-eza; pentsamendu-askatasuna lapurtuaz, "aizearen esanera dabillén kafiñabera" bezin auskor gizona biurtzeko, gaurko teknikaren bideak artez zuzentzen dakitenen indar-beartzeari kontra egiteko kemenik-eza."

"Erri-eritzia argitu ta zuzentzea dagokien gizonak maizegi, libertatez eta ondore onez ezer egiteko, eragozpideetan aurkitzen dira, batzuek beren borondate gaizto edo eskastasunagatik, besteak ezña edo kanpoko indarra bide dala."

"Erri-eritzia epaitzean, totalitarismuaren aurrez-aurre esitatz jartzen du Elizak

bere burua, Jauntxokeri ori, bere izatez, erritarren egizko eritzi libre baten etsaia baita derrior.

“Ain zuzen, aren izaera berak inpe-
ratzen baititu, Jainkoagandik izanik bi-
zi-maillei dagozkien Jainkoaren ordena
ta neurrizko autonomi auek.”

“Erri-eritziaren morrontzara leialki ja-
rri denak —gizarte-agintaritzza edo pren-
sa bera izan— baztertu egin bear ditu
gezur ta zirikatze gaiztoak. Ez aal da
espiritu eta gogo jokaera au guda-giroa-
ren uxatzaillerik benetakoena Baiña,
beste aldetik, dalako erri-eritzi ori go-
goz edo bearrez [goitik] bizkarreratua

denetik; gezur bidez, aurre-eritzi edo
alderdikeriz, estilo-paltsoz abotsera ta
kiñuen bitartez edo sumimena zirika-
tuaz, gizonok geure aburu ta usteak
oiñarrizkeko dugun eskubidea ametsezko
biurtzean, inguru sargori eta gezur ta
kaltezko bat sortzen da, eta onek, gu-
txiena uste dela, gertakizunen artean
[...] ito ta loarazi egiten ditu gizonak,
eta beren ondasunak arriskuratu ta bai-
ta beren odola paltsokeri ta gaiztake-
riaren alde ixurtzera beartu ere. Bene-
tan: erri-eritzia libertatez adierazten ez
dan tokian, arrisku gorrian dago pakea.”

PIO XII'ak Periodista katolikoeri
-1950'ko otsaillaren 17'an-

CONTRA FACTUM NON VALET ARGUMENTUM

B ETA V EUSKAL-ORTOGRAFIAN

Aurreko bi YAKIN'txoetan jardunaldi bat egin da gai onetzaz. Baiña, agi denez,
emen ez diteke urrutira joan; onegatik emen diogun onen bidez amaitzen dugu
eztabaida.

Andik eta emendik eskutitz gogor eta ain gogor ez diranak eldu zaizkigu,
ta onela, argi dago, ez dezakegu tajuzko elkarriketarik egin. Beraz, gauzak bere
lekuan apalatuaz, ona zer diogun:

1) “Galdera batzu” egin zitunak bere bosgarren puntuan A. Villasante'ren
ituzpideaz galdetzen zuen. Galdera au egitea zillegi zitzaion noski, eta ez daukagu
iñorekin asarratu bearrik.

2) “Erantzun naiez” lantxoan I'tar J.'k, Aita Villasante'ren eritzia eman
zuen. I'tar J.'rena etzuen iñork eskatu, ta onegatik ezta onek bereatzaz ezer esan
ere. Baiña iñor asarratu ez dakigun, zera esan dezakegu: I'tar J.'rena ez da bere
lantxo artan argitaratua.

3) Gaiñerakoan, YAKIN'en idazleetako bakoitzak, gai ontan, bere irizpide ta
jokabideak jarrai ditzazke.

YAKIN'en zuzendaritza oarra

BIZKAITAR BI'RI ERANTZUNA

1) Irigoien iaunari

“Nun nondik datorren errez ikusi leite-
ke” diñozu. —Ni baiñon abillago zara. Nik
ez dot aen garbi ikusten.

“Gaur egunean aozko izkeran oraindik
gutxi zabaldua da forma laburtu ori, nos-
ki”, diñozu ere. —Napar-Guipuzkoetan

amarretatik bederatzik “nun” esaten dabe-
la, Yon Etxaidek bere autortuten dau.
[EUSKERA, 1960, 71-23, 1.º: “Erriak gaur-
gaurkoz amartatik bederatzitan *dun*, *nun*...
erabiltzen du. *Nuan* eta *nusen*, berriz (oro-
bat, *duan-duen*) kaletarren batzuk erabilli
lezakete, baiñan, ene ustez sermolarien

gazteak ikararazteko **superdreagnout** omen da. Zer filosofu erosoia au! Auzi-zailak alde batera utzi. Ala ere, onela pake-pixka artzen ba'du, Leartza baiño filosofuago da; au beti bere urduritasunera biurtzen baita, kakalardoa bere opiltxoetara bezela.

Leartza filosofian jantzia ez ba'dago, beste oinbeste erlijioan. "Jesusek piztu zuanean (sic piztu zanean ordez), ezpide zian tutik esan beste munduaz... Zergatik?" Piztu zan egunean zerura joan zan, lapur ona atzetik zula; baiñan andik egunero agertu zitzaien Apostolueri, berrogei egunez dagokala. Eta zertaz itzezin zien? —**De regno Dei**. Tutik esan ez, eta zeru-erriaz bestetaz ez mintzatu!! Leartza jauna, gizonak astakirtena izatekotan, olakoxea nai luke. Kirtenkeri aukeratu goazen liburuaren euskerara.

Leartzak euskeraz ba-daki, ez gutxi ere: iztegi aberatsa du, esaera ere bai; ba du eragiña, ba-du zartzua (garbo); ba ditu, parrafo bat baiño geiago, euskal-idazlerik onenak bere egingo litukenak. Bakoitzari berea; baiñan utsak ere ba'ditu erruz, 323 uts, irureunda ogeitiru, 152 orrialdetan. Lapitzez markaturik dauzkat liburuan bertan. Buruenak zazpi ditu, geienik berrizkotzen ditunak: 1) bere, bera, berak, beren, &, aren, ua, aiek, aien, ordez; 2) ere, ia beti oker darabil; 3) egon ordez izan; 4) egin (galdekizun edo inquisitivo ez danean ere); 5) adi-jabe edo sujeto'a -k'rekin edo ain gabe, naastu egiten ditu; 6) al, ala ordez ahal; 7) -la ordez -na, a. b.: badakit ala dana. Gure aldean ez det beñere entzun, eta belarrian miñ aundia ematen dit.

Egon ordez izan. Gure pizkundeko aurren-berri artan, zenbait idazle napar-euskalkira jotzen asi ziran, batez ere Orkaiztegi Jaunak Mendibururen Otoiz-gaiak argitara eman zitunean, edo Eleizalde'ren aholkuz, edo Aita Erroman Bera'ren adiskidegoz. Esaterako, gose **naiz**, egarri **naiz**, nago ordez. Gure egon eder onek ba du eginkizun jakina, **egoe**-ra adierazteko. Eguzkialdeko gure anaiak eta eguzkialdeko naparrak galdu dutelako, guk ez al diogu eutsi bear gureari?

Zazpi uts-mota aukeratu, berrizkoak kopuratu ezker, eun pasatxoak egingo ditutela nago. Beste gaiñerakoak alde batera utzita, leenbizikoa artuko det aztertze, irakaskizun aundia baitu. Lenengo 50 orrialdeetan ogei ta bost aldiz ateratzen du. Aspaldi ontan arau-billa ibiliñ naiz, eta bururako arau edo teoriakin ez det ezer iritxi. Orain egun batzuk, Leartza rakurtzen ari nintzala,

arau bat asmatu nuun eskurakoa, edozeinek ondo erabili dezakena, arrazoia atxikitzen ez ba'du ere: erderazko **su** **suyo** orren aurretik, **gizon**, emakume, etxe, gauza (noiz eta nola) ipiñi; baiñan itz oieri -k atzetik erauntsi gabe; -k orrek uztarrerazi egiten baitu **su**, **suyo** ori, eta ordun **bere** bear du; **da'rekin** eta **zan'ekin** ez diteke uztartu, itsusi gelditzen baita; "etxe au berea da" ordez "gizonak etxe au berea du". Ederki uztartzen da **du'rekin**. Goazen esenpluetara:

"Olejua... igo nintzan bere ofizinara" (3'gn, orriald. azken lerroan). Ez diteke esan euskeraz igo nintzan (gizon) **bere** ofizinara, **gizon** **aren** ofizinara ordez. **Gizon** kendu eta kito. Obeto, bere ofizinara joan nintzaion, eta obeto, ofizinara joan nintzaion, bere kenduta.

"Olejua... kotxea artuta, bere (Monikaren) etxera joan zan". (15-18). Kotxea artuta (emazteki) bere etxera joan zan; (emazketi) aren etxera.

"Bere ikarak atsegin eman zidan" (9-1). (Gizon) aren ikarak.

"Errodrigo... bere etxean dantza izango zuten". (5-14). (Gizon) aren.

"Narda ematen zidaten bere kiñadak" (19-azken-ald.). (Gizon) aren.

"Bere lizunkeria zabarrak izkutatu egiten zuten bere zabartasuna (19-erditik beerago). Aren, aren.

"Bistan zan (zegon) bere azalkeria" (7-azken-ald.). Gizon aren.

"Olejuaren aurpegi gorrixka... begi urdiñak... bere abotsa... bere karraisiak... bere arrokeria" (22, azkenean). Au erdera uts utsa da: **sus**, **sus**, **sus**. Lenbizikoa **aren** egifi ezker, beste guziak kendu ditezke, ez bere ta ez aren.

"Enaiz bere izenaz oroitzen" (28-14). Gizon, emakume, aren.

"Bere ontzia urpetik omen zijoan". Aren ontzia.

"Bere ustez etzegoan erdian geratzerik" (32-22). Aren. Beste aldera ere esan diteke: Gizon arek **etzeukan** erdian gelditzerik (bere ustez).

"Bere itsasoa gizonaren asmamena da, eta bere ontzia guzien biotza". Oso illun euskeraz, erderaz dagolako. Ipiñi dezagun **du'rekin**: Gizonak **bere** asmamena **du** ontzia; bere ontzia guzien biotza?

ta ez dakizkizuen. Arrazoez ta alik zuzenen egin da oraingo au; jakiña izkuntza bizia iñoiz aaztu gabe. Azkenik, gogora dezagun: euskalari goikoenen maixutza izan dugu: Seber Altube, Luis Mitxelena, A. Omaetxebarria, t. a.

YAKIN'ek argitaratzen du lan au ta YAKIN-zale guziori dei berezi bat egin nai dizuegu. Gure aldizkari onen orriak jantzi egokiz apaintzeko guzior laguntza bear da. Ala ere, oraingoan ez gatoz diru-billa, ez; propaganda apur bat bakarrik eskatzen dizuegu. Badakigu liburu garestiak saltzeak nolako pozak dituen; onegatik alik merkeen jartzen dizuegu liburu

au, bakoitzak bere neurrian lagun dezaigun. Ez goaz negoziarik egitera; baiña, liburuaren berria zabalduaz, esku bat luza dezaigukete. Geroz ta geiago ditugu euskal-ikastolak ere ta zuek, askotan, oietako batean irakasletzan diarduenari propaganda-orritxoera kus dezaiokezute. Ez da lan nekarria, ta zergatik ez egin?, guretzat laguntza bikain bat gerta ditekalarik. Euskerarako bideak erreztu egingo dizkiezute zenbaiti, ta, bide batez, YAKIN'ek bultzadaxo onuragarri bat izango du. Propaganda-orriak bear badituzute, eskatu YAKIN'en Zuzendaritzara. Eskerrik asko, anaiok!

« P E R U L E A R T Z A ' K O »

Txillardegiren liburu

Barrenak ez dit agintzen ixillik egotea, liburu onek gaurko gazte-jendearen artean egin dezaken kaltearengatik. Leartza, liburu ontako giza-nagusia, europear bihurtu zaigu, izurri gaizto batean, beintzat. Ez dugu emen olakorik bear. Naiko gaitz daukagu leen ere ta naiko kezka, oraingo gizaseme batzuei iruditzen ez ba'zaie ere. Ez uste izan gu, katolikuok, auzi orren berri gabe patxaran bizi geranik; oiek eta latzagoak ere jasaten ditugu gizonki, goiko laguntzarekin. Lengoak ikusi omen zuna: uri aundi batetik pasatzean, deabru bakarra omen zegoen atean uritar guziak tentarazteko, eta geldi lanik gabe; baiña praille-Alkartegi batera iritxi zanean, bosteun deabru ari omen ziran lan eta lan, tentaketan, baten bat eroriatzen ote zuten. Unamuno, Leartza ta olako oiek, guk aifia duda ta kezka izan ote dute fede-gauzetan? Ez diegu ohore ori eman. Santuago ta eraso geiago. Olakoetan, edo gogor eutsi, edo ez sinistu. Beste jarrerara ori ez da batere filosofikua. Katolikuetan ere gerta oi dira banaka banaka erorikoak, filosofiari benaz ekitean, baiña gutxienak dira. Gure artean apaizjendea da saiatuena gai ontan. Emen ditugu Zaragueta, Zubiri, M. Zubeldia, A. Alzo, Barandiaran, & Leartza baiño saiatuagoak, baiñan ez dira kutsatu filosofoi ustel orrekin. Leartzaren filosofia ustela ta merkea da: novela tzarretan

ikasiaz. Jaun orrek ez du ukondorik urratu Aristotel istudiatzen. Au mutilla, oraindik ere, eskola nagusietan aipatzen eta istudiatzen dutena, bi milla ta laureun urte auetan. Metafisika-basoan dan zugatzik ederrena berak ezarri zuun, *ousia*. Leartzak ez du ametitzen *ousia* ori, ba-danik baldin ba'daki ere; baiña besteren agotik, Bergson'enetik ote? au esaten digu: "gauzetan ez dago ezer dirauenik". Onela Bergson'ek itzez itz: "il n'y a pas de substances". Eta gero: "mundua ez da ezer ni gabe"; "ba al da mundua ezer bere baitan?" (102 eta 118 orrialdeetan). Au ere Bergson'enetik artua ditek. Esaten baitu onek ere, "ni munduak sortarazten nau, ta berebat nik mundua sortarazten det"; alkar-sortze edo *evolution creatrice da guzia*; zer'ik eta zerbait'ik ez da; zerena edo zerbaitena, bai. Orain dala bi milla ta laureun urte, aurrak ere Grezia'n ti esaten zuten eta euskaldunak zer eta zerbait; eta emendik beste bi milla ta laureun urtetara, bi izkuntzak bizi ba'dira, berebat esango dute. Iraizean, itz batzuk Bergson'engaz. Ni arrituta egoten naiz beti, kritikak nola jorratu ez dun geiagoko olako astapuzkeriak esan ditun gizona. Esaten ere du, gizona ekaia (*materia*) dala; *l'etre, la cause, la liberte, la finalite*, auzi ikaragarriak dirala, ta ez dala oietan pentsatu bear: *ce sont des problemes angoissants*. Moral'a, berriz,

da = cosa de comer, &. Iainkoak bizi luzea emoten ba deust, eta ortarako astia, isplikatuko naz obeto.

"Alako edo olako maixuak (maixuk) jokera ori asi dauala-ta, beste barik ezin geinkio jarraitu. Nik neuk beintzat, ez", diño bedorrek. Bapo! "Nik neuk (barrero), moi je prantsesez, sekula ez neban entzun errian urtedun itza, urteko baiño... **Erderismos** Altube'ren idazkian jokera orren okerragaz konturatu arte". —Zure arrazoi motz bateri osteragiltza emongo neuskio, Altube iaunari zor iakon begirunea ez baneuko tarlean: "Alako edo olako maixuk esan dauala-ta, beste barik ezin geinkio jarraitu". Baiña goazen arrazoiketara. Dakidala nik ez dot erabili urtedun, baiña darabilenari ez deustot muxin egingo. Itxiozu pakean erriari. Gauza bat ondo esaten ba'dau, beste bat ondo esana surkitu lei, erriak esaten ez ba'dau bere. Altube iaunaren baimenagaz, ez dot uste urtedun txarto dagonik. Iñok ez dau itanduten "nungo edo noizko urte dozuz?" zenbat urte dozuz? ba, denporea gauza lez artzen dogula, -go, -ko, toki dira: etzeko, baserriko, mendiko, &.

"Jokera ori bidezkoa ba'litz (-a artikulua kendutea) nik be artuko neuke. Baiña orretarako arrazoiak emon bekidaz". —Parlatu, baiñan ori ez da enskera. Emon (nik) ezin uztartu dadi *ekidin*'ekin, biak-k gabedun adi-iabea behar baitabe. Etorri bekidaz, gertau bekidaz, eta abar ondo dagoz, bai. (*Ni* etorri, *au* gertatu), ez nik eta onek. Ori, idia astoagaz uztartutea da. Emon begidaz, bai; emon eta egin biak *k-dun* baitira.

Bedorren serbitzurako.

Orixe,

BIOTZA GORDIN

Biotza gordin, ezea...
Odolaren kea
ke eze, gordiña,
gorri antzean urdiña.
Ai urdiñaren gaztea!
Ai gorriaren griña!

**

Ba-du zugaitzak
zorne ixilla,
indar emango diona.
Alaxe dugu gizona:
biotz-mamian

odol aparra.
Odol apar purpuilpean
bere indarrak
gorri diraki
bor-bor ixillean...
Maitasun moztioa
sagardo biurtutzen
upel-sabelean...

**

Geldi, geldi, gazte susper!
lanean duzu biotza.
Apar likitsa bota dezaiño
sartu berriro zipotza.
Goza da bai moztioa:
moztioaren gozoa...
Edan da edan
xora zindezke;
xoramenaren moskorra...
Geldi, geldi, gazte susper!
odola duzu zikiña.
Zaude ixillik maitasun zai,
ameslari, alai,
naiz barnean miña...
Noiz zure ordua iritxiko ote?
Noiz garbituko odola?
Geldi, ameslari...
naiz barnean griña...

**

Biotza gordin, ezea...
Odolaren kea...
Orain bai maite duzula,
garbi, bulkotsu bai zera,
maitasunaren urrea...
Urrezko pakea!

Otarri

EUSKAL-ADITZA

Laister zuen eskuetarako eran izango da liburuxka pollit bat: «Euskal-aditza: Gipuzko - Bizkaierak. Paradigmas verbales y método racional para su estudio» deritzaiona.

Aditz berri bat?, esango diguzute. Bai ta ez. Euskal-berbua betikoa dugu; baiña ba-liteke, oraingo onetan, zenbaitetan baiño zuzenago aurkitzea (aurkibidean ikus dezakezute ori). Batez ere, beste alde onak dituela esango genuke: gipuzkera ta bizkaiera batera doazta, gaiñera, metodu bat du biontzat, ikas-bideak malkartsuegi ger-

eta irakurkizunen eragiñez. Baserritarrai, ostera, eztiak sekula entzun]. Or erantzuna. Nire erantzuna luzeago lizake, ta beste nunbait agertzeko asmetan naz, argi ta sakon.

"Probatu litekeenez, sekula ezta erabili Euskalerriko ifongo aldetan ekarri *dun* ogia, aspaldiko denboretan" —Proba eza zu, bada!

Gure autorerik zaharrenak atzoko dira. Len zer gertatu zan, joan eta billa. *Dun*'en alde or daukazuz euskaldun, ez euskaldun, bizardun, dirudun, eta senardun, esaterako. Azken au esan zahar baten, axular eta baiño zaharragoko errefau artan: "itxasturuaren emaztea, goizen senardun, arratsean alhargun". Ganera, zure errazoiari erantzunez, guk ez dogu esaten duan eta duen orreitan *a* ta *e* epentetika diranik, *edun* lez *iokatzen* *ba'dira*, bai *Un* lez *iokatzen* *ba'dira*. Zer da UN ori? Olabide zanaren balizkizun (hipotesi) bat. EDUN bere, hipotesi artu dadike; orregaitik ipinten dabe izartxoagaz. Ernamiña -u- dauan orren izen zaharragoa ez ote zediken (eiken, *pardon!* eikean) UN? Gure iokaera garbi garbiari begirata, baietz esan lei: d-u-t, (ne) n-u-n, (ne) n-u-ke, (ne) n-u-ken. Dana dala, ez dakigu zein uste dan erdinstel, eta bitartean, ondo da, batasunareko, arauz-erara dagon hipotesi bat artutea. Zuena arauz-ipurdi dago, Bizkaian ezik. Zergatik esaten dabe kiputzak *zenuen*, *zuen*, eta ez *zenuaten*, *zenueten*, *zueten*, *zueten?* esan bear lizakenez? (Nen-edu-n, zen-edu-n, z-edu-n; gen-edu-n, zen-edu-ten, z-edu-ten). Zergaitik esaten dabe nuke, zenuke, luke, gure aldera etorritik, eta ez nuake, nueke, zenuake, zenuke, luake, lueke? Bizkaitarrak ederto: neuke, leuke (n-edu-ke, l-edu-ke). Anarkia naiago dozue, ala? Ori ez da batasunera bidea.

Nuan, nuban (nungo giputz-erritan?), nuen (Napar-sortaldean eta Laphurdin), nuben (Naparroako sakan-errian), nuin (Laphurdin, Uztaritz aldean), niin, nin (Baxenabarren), nian (Xuberon), noon, non (Giputz-goierrin), nuun (an-emenka nahaste) nun (Napar-Gipuzkoetan amarretatik bederatzi); neuan, neban, nuan, naban, nauen, nabun, *nemen* (nik Araba'ko Zigoitian bildua): emeretzai aldetara. Egizu or batasuna! —Bai, eta errez, euskera idatzirako, *edun* hipotesi artu ezkerro: nen-edun (metatesiz nen-uden, neuen, nuen), &, &. Zuok alkar artu bear dozue. Nuan,

zuan *Radio Voz de Guipuzcoa* ta idazle batzuk; nuen beste idazle batzuk. Guk batasuna egiñik itzi gendun orretan.

"Orixe'k aipatzen duen NENDUN ortaz Gipuzkoan ezta arkituko arrastorik..." —Gaur ez, baiña gendun esan oi da, eta *néndun* esango zala uste izateko da; *ni* ta *gu* batean sortuko ziran bezala, *n-endun* eta *g-endun* bere bai. Zentzun onak ori diño. Ganera, esaten da *nindun*, gure baitarako ioka-itzetan. Lehenaldiaren ezaugarri edo nor-zantzu auker ditugu: *nen-*, *zen-*, *z-*; *gen-*, *zen-* (te), *z-* (te), *nin-*, *zin-*, *z-*, *gin-*, &, &.

"Bizkaiko erri bat edo bestetan..." —Baita gipuz-Gipuzko osoa baiño toki zabala-goan. Ken iozuz Gipuzkoari Bizkaigipuzkoa ta Napar-gipuzkoa. Zetan geratzen da? Orozko erri galanta beure ballerakaz, Zerberio, Arrankudiaga, ta inguruak Lezamatik asita itxas-egiraño, Mungi ta Laukiniz alde ez ete dira Gipuz-gipuzkoa baiño geiago lurrez?

Irigoien iauna, zure serbitzurako dago.

Orixe,

2) Kamiñazpi'ri erantzuna

Iauna: andi andirik dator bedorri, ta borobil borobil, niri lepo-ganetik zear-begiratu bat egiñaz. EKIN zanaren idazleetako ba zara, ta zerbaitxo irakurri ba'dozu, ba-dakizu nok sartu eban artikulua kentzeko moda txar edo on ori, eta iauntxo ori bizi dozu eta ba-du bere izena.

Zer arrazoi artikulua kentzeko? Ba-dira gitxienez ogetamar urte Artiz'tar Xabier'ek eskauta artikulua luze bat egin nebala nire arrazoiak emonaz. E-naz barrero lehengo gorakora (gonbitura) itzuliko, txakurra lez. Artikulu a ondo artua izan zan, eta ientea nire atzetik etorri zan. Zuk orain bestera eroaten ba'dozu, zu nagosi. Gaztelan esan daroiena: *el que más chifle, capador*. Diñozun -a ori ganez dago askotan. Ba-dakizu noz konturatu nintzan? Aspalditxoko urtietan, baxenabartar batekin ari nintzala. "Nongoa zira"?, nik, eta"-Donapaleuko", erantzuna. *De dónde eres?* —*De San Pelayo. No el de donde. El de San Pelayo*. Artatik asi nintzan neure baitaritzen. Batzutan edo askotan ez da kendu behar ganez dagola dirudien arren. Esaterako: au jateko da = para comer; jatekoa

"Bere zafiak lehertzeaz jarri ziran". Aren... edota, zafiak lehertzeaz jarri ziran (gizon ark). Euskera garbiz: jarri zitzaizkion.

Naiko erakusgarri dira, idazleak inoiz utsegin ez dezaten.

Europear biurtu nai gaitute. Zertan, ordea? Zer eta zerbait eta izatea kentzen ba'ditugu, joan da pertza; Metafisica erro-errotik ateratzen degu, filosofia dun zatirik ederrena. Arako ingeles filosofuarena: "lan-maiean ari naizenean, gauza guzia itxura ta irudipenak dirala uste det; baiña otordu-maiean txuleta eder bat ikusten dedanean, ua zerbait dala iruditzen zait".

Txillardegi'k bere liburua onela bukatzen du: "Arrazoi zenuen: burutik egiña dago" (Leartza).

Nik ere artikulua onela bukatzen det: "Liburu au buruz egiña ordez, burutik egiña dago. Bazartu ezazute zoko illunera".

Oarkizun. Orain ez daukat Bergson nerekin, eta ezin aipatu izan ditut orrialdea ta lerroa. Nik 78'garren argitaraldia irakurri nuun, eta seguru nago, an, gizona ekaia (**materia**) dala esaten dula.

Nola, bada, dioke baten batek, materialistan aurka pagina ederrak idatzi bazitun? —Ez, beraren sistemari egi ori zeriolako, ala gertatuz baizik (**per accidens**).

Naiago nuke A. Intxausti'k Ortega Gasset'ekin egin duna Bergson'ekin egingo ba'lu.

Orixe.

YAKIN'en sariketa

Jakiñaren gainean zerate YAKIN'en argitaratzen diren lanentzat antolatatu genuen txapelketaz [Ikusi YAKINtxo'ren lendabiziko zenbakiaren 2'en orrialdea]. Ba, oraingoan epaileak eman nai dizkizuegu ezagutera. Prakadun ta eliz-gizonak naasian aukeratu ditugu. Bost dira guziok ta ongi ezagunak guzientzat. Bakoitzak lau lan izendatuko dizkigu, beren balioei dagokienez zerrendatuaz eta, lan guzion puntuak zenbatu ondoren, zuzendaritzak argitara emango du azken erabakia. Ona bostok:

Luis Mitxelena Jauna,
A. Santiago Onaindia, karmeldarra,
A. Karmelo Iturria, prantziskotarra,
Imanol Lekuona Apaiz Jauna,
Txillardegi Jauna.